

Donostian, milla bederatzireun eta berrogeitamalaugarren urteko Lotazillaren ogeitamarrean, Ekaute-jauregian, Irigarai jauna maipuru dala ta Lekuone, Mitxelena, Villasante ta Oleaga euskaltzainak eta Lojendio ta Arrue euskaltzainordeak etorririk, egiten dau Euskaltzaindiak gaurko deituriko batzafa.

Araudizko otoitza esan eta, lenaurreko batzar agiria irakurri da, ta ao-batez onetsia izan da.

Lenengo aitatu da Etxaide Euskaltzainburuordeak oraintsu izan dauen gaisoa, ta berau dala-ta batzarrera ezin etorri izan dala. Batzarkideak minduta artzen daue barri tamalgarri au ta gaisoaren sendamena osoro ta arin eldu dadin biotz guraria agertzen daue.

Urrengo, Salamankan, 1955gko. Jorrailean egingo dan izengaizko Batzarrerako actu dan deia, adierazoten da. Batzar orretarako, Euskaltzaindi onen ordezipena Mitxelena jaunari emoten jako. Norbaitek batzar atarako lan egokiren bat gertuten badau, bidaldu bertara.

Irigarai jaunaren eretxiz, Norbert Tauer, Txeko-eslobakotarraren euskaltzaletasuna Euskaltzaindiak urgazle izentaurik saritu bear leiteke: orretarako aitatzen dauz jaun orren lanak eta irabaziak. Olantxe erabagi da.

Gero irakurri da Jon Garmendia, Donostiako "Begoña" izendun liburutegiaren jabeak, bere liburutegi ori eskintzen dautsala Euskaltzaindiari, beronen liburuak uri atan salgei jarri gura badauz. Aintzakotzat artzen da eskintza ori, eta itundu bediz Garmendia jaunagaz zertzeladak.

Juan Arbelaz donostiarrek eskatzen dau Euskaltzaindiak salgei daukazan liburu-zerrenda bat, bakoitzaren salneurria aitaturik. Gutuntzainak, edota beronen ordeak, atondu begi zerrenda ori ta bidaldu bekio Arbelaz jaunari.

Urrengo, sari-batzaldira ekarrirako Gertirudiak, Euskaltzainak ondo ta zeatz azterkaturik daukezan ezkeru, erabagi da:

Lenengo saria "Joanak joan" deritzanarentzat.

Bigarren saria "Bide izkutua" deritzanarentzat.

Irugarren saria "Aspaldiko Maigret" deritzanarentzat.

Sari banatze au egin eta saritutako lanen egileak nortzuk diran ikusi da, onexek dira: 1.—Juan aldamin; 2.—Sabino Berasaluze, Prantzizkotarra; 3.—Eusebio Erkiaga.

Ganera, aitaturritzat artu da "Amabost egun Urgainen" deritzain gertirudia. Beronen egilea, Jose Antonio Loidi jauna da.

Aitatu da gero Euskaltzaindiaren gutun **Euskera** argiteratzeko oraintsu eskatu dan baimena emon dala, oraindiño baimen oren agiria artu eztan are. Artutakoan, eginda dagozan ejikiak jaso bear izango dira, eraz saltzeko ta zabaltzeko. Salneurria amabost peseta bedi.

Azkenez, urrengo batzarrak etorteko dagon Urtarrilla-Ilbeltzaren egeitabederat-zian eta ogeitamarrean. Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean egitea ebatzi da. Oneri buruz, aitatzen da, egun orotariko baten Bilbon euskal-gaizko itzaldiren bat egitea egoki izango litzakela. Ao-batez aintzakotzat artzen da eretxi au eta Lojendio jaunari eskatzen joko itzaldi ori gertu dagiala. Baietz dino jaun orrek eta bere itzaldi orren gaia "Introducción al estudio de la literatura vascongada" izango dala diragar. Begiz Bilbon Oleaga jaunak asmo au betetako bear diran gertakuntzak.

Beste barik araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadorlaria
Nazario Oleaga